

# BI ANAI

BERNARDO ATXAGA



n a r r a t i b a •

ere in

BI ANAI

n a r r a t i b a • 148

ere in

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 1985eko apirilean*

*3. argitalpena: 2023ko irailean*

Azalaren diseinua:  
Iosune Sarasate Azcona

Maketazioa:  
Erein

© Bernardo Atxaga

© EREIN. Donostia 2023

ISBN: 978-84-9109-918-5

L.G.: D 851-2023

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107 - 20018 Donostia

T 943 218 300

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 - 20800 Zarautz

T 943 835 008

[itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasagarrian kudeatutako basoetatik dator.

Bernardo Atxaga

BI ANAI

*Edizio berritua*

| *Edizio-lana: Asun Garikano* |



erein

*Ene gurasoei*

## TXORIAREN KONTAKETA

*Barneko mintzoaz. Heriotza eta promesa.*

*Paulo eta Daniel*

Bada Mintzo bat barnetik sortzen zaiguna, eta Mintzo horrek agindu bat eman zidan uda hasieran, artean inozente, mizpira arbolatik sekula atera gabeko txoria nintzela.

Mintzoa entzun aurretik, mizpiraren hosto ilunak eta mizpiraren aldamenetik zihoan ibai txikia ezagutzen nituen; beste guztia ez nuen ezagutzen. Badira mendi harritsuak —esaten zidaten lagunek—, badira etxeak eta bideak, eta bada gure ibai txiki hau baino milaka eta milaka aldiz handiagoa den beste ibai bat, itsasoa esaten zaiona, non biltzen diren gure ibai txikiaren urak eta beste askorenak. Baina nik ez nituen ezagutzen.

Ezagutzen ez nituen arren, nik amore ematen nion lagunek esandakoari, zeren gehienek ikusiak baitzituzten aipatzen zizkidaten gauza haiek, eta akatsik gabe bateratzen baitziren haien iritziak, hala itsasoaren zabaltasunari buruzkoak nola etxeetako horma zuri eta teilatu gorriei buruzkoak.

Bada Mintzo bat barnetik sortzen zaiguna, hori ere esaten zidaten. Gure bihotzaren erdiraino sartu eta handik hots egiten digu. Gero, gure gaineratik jartzen da.

—Gure gaineratik?

—Gure gaineratik, ezkutuko errege bat bezala.

Baina ez zuten ezagutzen. Nahiz eta batzuk urteetan aurretatuak izan, ez zuten ezagutzen. Lehenagokoei ikasia zieten, eta lehenagokoek haien aurrekoei, eta horrela munduan izan zen lehen txoria arte. Nik sinistu egiten nien, baina ardurarik gabe, ipuin bat sinisten den modu berean.

Gero, uda hasierako egun hartan, artega sumatu nuen neure burua, mizpira uzteko gogoia egin balitzait bezala, edo oso gosetuta banengo bezala, eta inon pausatu ezinez ibili nintzen goiz osoan, adarrez adar, edo ibai txikiaren ertzetako harri-koskorretara joan-etorriak eginez. Aldi berean, entzumenak kolpetik zorroztu zitzaidalako-edo, dena ozenago entzuten nuen, ibai txikia hazita etortzen zen aldietako burrundarekin. Eguerdi aldera itolarriak eman zidan, mizpiraren hostoak mugitzen zituen airea arnasteko gaitasuna galdu banu bezala.

Zentzurik gabe kantatzen hasi nintzenean, lagunek bakarrik utzi ninduten.

—Zergatik alde egiten didazue? —galdetu nien.

—Hiltzera zoazelako.

—Ez nazazuela bakarrik utzi —erregutu nien beren txoetara begiratzuz, orain hosto honetara, orain adar hartara.

Baina han ez zegoen nire begirada jasoko zuen inor. Baxora ihes eginda zeuden denak.

Mizpiraren bakardadean nire bizitza errepasatu nuen, eta oso gauza gutxia iruditu zitzaidan. Begiratu nion zeruari, eta urdintasun berri bat antzeman nuen han, inoiz baino urrunagoa. Begiratu nion ibai txikiari, eta uraren beheranzko jorak izutu egin ninduen. Begiratu nion lurrari, hango lahar

eta osinei, eta behin lagun batek kontatutako gertaera gogoratu zitzaidan.

Neska gazte bat gaixotu egin zen eta medikuarengana eramán zuten. Eta medikuak hola esan omen zuen:

—Gona zahar bat adabatuko litzateke, baina hau ez, neskatxa hau ez.

Neskari ez zioten ezer aipatu, eta barbero batengana eramán zuten hark sendatuko zuelakoan. Hola esan omen zuen barberoak:

—Hankak handitzen hastean, azkar ibili neskatxa honekin.

Orduan ere ez omen zioten neskari ezer aipatu eta etxera ekarri zuten astoaren gainean.

Baina egunak etorri eta egunak joan, neska konturatu egin zen. Erremediorik ez zuela etsi zuen, eta, hori gogoratzen zitzaionean, batzuetan konforme eta bestetan triste jaritzen omen zen.

Egun batean, anaiak leihotik baratzerá begira eta negarez aurkitu zuen, eta hola galdetu:

—Zer dun, arreba?

Eta neskak:

—Ez diat ezer ere, baina pentsatzen nagok aurki lur horren azpíra joan beharrean nagoela hemeretzi urterekin...

Neska hura gogoan, goiko adar batetik beheko batera jaitsi nintzen. Arina izan zedíla kolpea lurrera erortzen nintzenean.

Hartan, heriotzaren zain etsita nengoela, Mintzoa barneratu zitzaidan. Aurrena isiltasun handi bat hedatu zen, elurak mizpíra eta inguruko bazterrak estaltzen dituenean



bezala, eta isiltasun hartan barnea mintzatzen hasi zitzaidan, ibai txikiaren hotsa bihotzean sartu eta hitz bihurtu balitz bezala.

—Har ezazu Obabarako bidea —eskatu zidan Mintzoak—. Egin hegal Pauloren etxeraino.

Ez dakit nor den Paulo hori, pentsatu nuen.

Hura pentsatu orduko herri bat ikusi nuen, Obaba, eta herriaren aldamenean tontor bat leiho askoko etxe batekin. Paulo han bizi zela jakin nuen.

Etxeko ataritik hiru bide ateratzen ziren. Maldan behera egiten zuten hirurek ibai txikiaren alboan zegoen zerrategi batera iritsi arte. Iduri zuen bi lekuak zinta-sorta batez lotuta zeudela.

Ez hainbeste nire dohain berria neurtzeko nola jostaketa gisa, beste gauza batzuen albiste ere izan nuen. Hala, mendi harritsuak ikusi nituen; hala, ibai txikia itsasora heldu bitarteko bide guztia ikusi nuen. Desiratzearekin batera jakiten nituen gauzak.

Aireratu, eta Mintzoaren esana betetzera abiatu nintzen.

Ibai txikiari segitu nion, beheko alderantz, haltz zaharren gailurretatik apartatzera ausartu gabe hegal egiteko nire ohi-tura ezagatik. Lur gainean zerrategiaren zantzua antzeman nuenean, ikara uxatu eta zeruaren urdintasunerantz igo nintzen. Eguzkia apur bat zokoratua zegoen ordurako, baina urre izpiz betetzen zituen halere herriko leihorik altuenak. Are gorago igo eta Paulorengana bideratu nintzenean, zakurren uhuriak sentitu nituen. Lanturu bat zabaltzen zuten Obabako airean.

Zein gauza tristea lanturu hori, pentsatu nuen.

Aurrerago joan nintzenez, lanturua Pauloren etxeko ataritik ernetzen zela konturatu nintzen, gainalde hartako zakurrarengandik, eta beste zakurrek –baratzeetako txaboletatik erantzunez, mendi hurbiletatik erantzunez, mendi urrunetatik erantzunez– oihartzun egiten ziotela haren uhuri lehenari.

Ostera ere, gaixotutako neskek bere anaiari emandako erantzuna gogoratu zitzaidan:

—Ez diat ezer ere, baina pentsatzen nagok aurki lur horren azpira joan beharrean nagoela hemeretzi urterekin...

Ez nuen beste oroitzapenik behar izan. Zakurren uhuriek heriotza bat iragartzen zutela jakin nuen.

Ikus nezakeen ibai txikia itsasoan sartzen, eta segi niezaiokeen haren aztarnari aurrerago ere, behin ur handitan barneratu eta arrain handiz betetzen zenean; arrain beltzak denak ere, jiratu eta norabidez aldatzean zilar koloreko errainuak eta burbuilak uzten zituztenak. Baina ezin nezakeen Pauloren etxeko horma gainditu, eta ezinezkoa zitzaidan, beraz, hiltzeko zorian zegoena nor zen jakitea.

Apika, Paulorengatik ari dira zakurrak lanturuka, pentsatu nuen.

Burutazio horrek susmoa piztu zuen nigan. Mutil haren begiak ixteko bidali ote ninduen Mintzoak hara? Orduan sortu zen Mintzoarekiko nire lehen kexua, hasiera hartan bertan. Zergatik erakusten zidan Obabatik hain urrun zegoen itsaso hura, itsaso hura bere arrain beltzekin, eta ez, aldiz, sufritzen ari zenaren aurpegia? Baina Mintzoa osoaldi bakanetan ematen da aditzera, eta nire galderak bere hartan gelditu ziren.

Susmoa burutik kentzeko ahalegina egiten ari nintzela, zintzarri baten hotsak Obabako bi auzo nagusiak batzen zituena bidera begirarazi zidan. Mutil koskor batek jotzen zuen zintzarria, eta sorotan ari zen jendea belaunikatu egiten zenei hura entzun orduko. Mutil koskorraren atzetik beltzez jantzitako gizon bat zihoan. Mintzoak herriko erretorea zela jakinarazi zidan.

Zerrategira ere begiratu nuen, eta hiru gizon ikusi nituen enbor baten gainean eserita eta lurrera begira.

Elizako kanpaiak hiru aldiz hots egin zuen, eta haren lanturua zakurrenari erantsi zitzaion. Baina kanpaiarena etsia goa zen.

Zenbat eta aurrerago joan arratsaldea, ugariagoak ziren heriotzaren seinaleak Obaban.

Behin Pauloren etxeko teilatuan jarri nintzenean, katagorri multzo bat antzeman nuen sagarrondo baten adarretan, eta harritu egin nintzen. Mintzoak aginduta etorri ote ziren haiek ere? Horregatik zeuden han? Artean ez nekien Paulok anaia zuenik, bera baino zaharragoa, Daniel; ez nekien katagorriak anaia harengatik zeudela han, eta, harritu ez ezik, zapuztu ere egin nintzen. Ez nuen inor nahi inguruan, bakarra izan nahi nuen Pauloren alboan.

Zein lehorra zaren, egotzi nion neure buruari. Ez duzu bihotzik, zeureaz bakarrik arduratzen zara. Zergatik izan behar duzu bakarra Pauloren alboan? Ez daukazu inolako esubiderik.

Hala, damututa, etxera sartu nintzen. Berehala, argizari usaina sentitu nuen pasilloan, egurrak isuritakoa. Pasillo hartatik joan eta gela batera heldu nintzenean, gizon bat ikusi

nuen ohean etzanda. Nekez hartzen zuen arnasa. Gizona Pauloren aita zela jakin nuen, eta haren aldamenean zegoen mutila Paulo bera zela.

Paulo ez zihoan hiltzera, zakurrek ez zuten harengatik egiten uhuri.

Aita zeukan gaixo. Aitarik gabe geratzera zihoan.

—Zaindu ezak Daniel, Paulo. Bihotzez eskatzen diat, ez ahaztu inoiz heure anaia.

Pauloren aitak itxita zeuzkan begiak, eta etengabe bihurritzen zen ohean, maindireak txingarrez beteta baleuzka bezala.

—Zergatik ari ote du horrenbeste euri? —galdetu zuen bat-batean—, Ez al gaude ba uztailean?

Erabat urdina zen, ordea, nik zeharkatu berri nuen zerua. Egun hartan ez zen euririk. Leihoko pertsianak bilduta zeuden arren, eguzkiak orrazi-hortzen moduko lerro beilegiak marrazten zituen horma batean. Armairuko ispiluak arindu egiten zuen gelako ilunpea.

Ordura arte ikusi ez nuen andre zahar bat txoko batetik atera eta astiro-astiro hurbildu zen ohera, airea lekuz aldatzeko ikaraz bezala. Etxeko lanak egiten zituen neskamea zela jakin nuen.

—Zakurrek —xuxurlatu zion Pauloren aitari—, zakurrek nahasten dute berori.

Uhuriak utzi eta zaunkaka ari ziren orain zakurrak. Pauloren aitak, sukarragatik, euriaren hotsarekin nahasten zituen zaunka haiek.

—Zaindu ezak Daniel beti. Beti, Paulo, beti-beti, euritan bezala eguzkitan, eta uztailean, eta eguberrietan. Hamabost

urte besterik ez dituk eta pena handia ematen zidak heure bizkar gainera holako karga handia botatzeak, baina ni hiltzera noak, laster hilko nauk, eta lan hori heuk bakarrik egin dezakek, heuk bakarrik, Paulo. Etxea nork zaindua izango duk, zerrategia nork zaindua izango duk, baina Danielek hi edukiko hau ala ez dik inor edukiko...

Une batetik bestera arnasarik gabe geratuko da, pentsatu nuen.

—Ez da zure kulpa izan, Maria, beti esaten dizut, eta gainera Daniel ez da barru txarrekoa, gizajoa...

—Maria zena ez dago hemen —eten zion neskame zaharrak. Maria hura Pauloren ama zela jakin nuen.

Mutilaren begiak urdinak ziren eta ispiluko errainuetara zuzenduta zeuden. Baina ez zitzaion beste ahulezia seinalerik antzematen.

—Ez zaio Maria zenari ari, semeari ari zaio, Paulori —gehitu zuen andreak.

Gizonak begiak itxita eta lehengo egonezinarekin segitu zuen, entzun zuen ala ez adierazi gabe.

Ondorengo isilunean gogorra goa egin zen gelako usaina; argizariarenari izerdi ustelduarena gailendu zitzaion. Paulok bere gorputzaren kargari eusten zion hanka mugitu zuen, eta gero igurtzi, txingurritu balitzaio bezala.

—Ez da zure kulpa izan, Maria —ekin zion aitak oster.

—Hitz egin biezaio mutilari —eskatu zion neskame zaharrak.

Orduan begiratu zion aitak lehenengo aldiz semeari, orduan zabaldu zituen begiak. Paulori begi haiek ikaragarriak iruditu zitzaizkion, lehengo aldean dobleak.

—Daniel hire gain har ezak, Paulo —esan zion ia entzuten ez zen ahotsez, soilik esperantza gabekoek izaten duten umiltasun horrekin—. Ez, gero, utzi trapu zaharraren moduan! Ez duk trapu zaharra, hire anaia duk, Paulo, hire anaia bakarra.

Hori esatean, ukabilak kopetara eraman zituen nini se-haskakoak bezala.

—Agintzen al didak, Paulo? Agintzen al diok hire aitari?

Paulo ez zen erantzuna ezpainetaratzeko gauza izan, eta buruaz egin zuen baiezkkoa, burua gora eta behera nabarmen astinduz. Haren pentsamendua entzun nuen orduan.

Hilabete ez da, pentsatu zuen Paulok, zerrategian ikusi nuela elastiko hutsik lanean. Orain hemen dago begi handi horiekin. Bihar, berriz, ez dut ikusiko, eta etzi ere ez, eta etzidamu ere ez. Aita ez dut gehiago ikusiko.

—Baietz esaten dio —lagundu zuen andreak—, ondo zainduko duela anaia.

Aitaren gelatik atera zenean Paulok etxe guztia miatu zuen Danielen bila. Sukaldean zegoen bere anaia handi hura, mahaiaren azpian makurtuta. Hormari begiratzen zion, esanez bezala: «Horma hau bakarrik inporta zait». Atean norbait sentitu zuenean, horma hartaraino lerratu zen belauniko jarrita. Ezkutatu egin nahi zuen, baina mahaia altxatzea eta bi hanka gainean uztea baino ez zuen lortu.

Paulok ez zuen harritzekorik egin Danielen portaeragatik, ezta lurreko lauza baten gainean putzu horixka bat ikusi zuenean ere.

—Zer egiten duk hor, Daniel?

Danielek burua jiratu zuen. Ez zeukan ia betilerik, eta haren begiek trabarik gabe adierazten zuten momentu hartan

sentitzen zuena: ikaratuta zegoela zakurren uhuri haiengatik; are eta ikaratuago, ondoan aita falta zuelako.

Astiro-astiro pixa usaina sukaldeko airea kutsatuz zihoan; mahai azpiko putzu horia gero eta ilunagoa zen. Ordea, Paulok ez zuen hartaz jabetu nahi izan, eta, bera era txoria baltz bezala, txistu eginez berritu zuen galdera: txistu luzeak hitz luzeentzat, txistu laburrak hitz laburrentzat.

Danielek irribarre egin zuen bere hortz handi okerrak era-kutsiz.

Mutil hau ez dut sekula maitatuko, pentsatu nuen. Baina pentsatu orduko damutu egin nintzen horrelako gauza bat pentsatu izanaz.

—Ez al dakik mutil handia haizela, Daniel? Edozein tokitan gordeta ere, harrapatu egingo haut! Beti harrapatuko haut!

Kilimakiak eginez bere gordelekutik aterarazi zuenean, barre egin zuten biek. Paulori ia ezkutatzeraino kizkurtzen zitzaizkion begiak; Danieli karkara moduko bat ernetzen zitzaion bularretik.

Ez ditu hamazazpi urte izango, pentsatu nuen, eta bere bularra gizon arrunt batena halako bi bada.

—Pixa, Paulo.

Iduri izan zuen bular handi haren barnean birika ñimiño batzuk zeuzkala, eta birika haiek oso haize gutxi bidaltzen ziotela eztarrira, bi hitz haiek doi-doia osatzeko lain. Barrea ere eskasa zuen.

Galtzak seinalatzeaz batera, kezka punttu bat kopetaratu zitzaion. Paulok harridura keinu bat egin zion, esaje-ratua.

—Hara! Zer pasa zaio gure mutil handiari? Zer iturri txiki dauka hor?

Paulok itxi egin nahi zion iturri txiki hura izter artean zanpatuz. Daniel algaraka hasi zen. Paulok oilo loka larde-riatsu baten lepo-aurpegiak jarri zizkion.

—Azpiko arropa aldatzera segituan!

Zergatik maite ote du horrenbeste, pentsatu nuen.

Eskaileretan estropezu eginez, malkoa zeriola algarengatik, Danielek bere gelarako bidea hartu zuen. Arestian ñimiñoak bezala, orain erraldoiak ziruditen bular hartako birikek; garrasiak zakurren lanturuen gainetik zabaldu ziren etxean. Paulok baietz harrapatu-ezetz harrapatu segitzen zion, aldian behin ipurdian atximurkadak eginez.

Behin pasilloan, bizkar gainean jarri zitzaion Danieli, lepotik helduta.

—*Arre burro condenado*, aurrera joan behar eta oraindik hemen hago!

Danielek ezin zuen gehiago. Lurrera erori —edo bere burua bota— eta azpian hartu zuen Paulo. Bi anaiek pasilloaren erdia ibili zuten, herrestaka, borroka itxurak eginez. Haiek pasatutako lekuan distira galtzen zuen argizariak.

Izerdiagatik zela edo malkoengatik zela, Danieli blai jarri zitzaion musua, eta arnaska hasi zen, bularreko birikak berriro urritu izan balitzaizkio bezala. Nekatuta zegoen, neke handia ematen zion gorputza mugitu beharrak. Haren musu hura Paulorenean erantsi eta lo bezala gelditu zenean, nazkak hotzikara bat eragin zidan.

Ez diozu nazkarik izan behar Pauloren anaiari, pentsatu nuen.



Bien bitartean, arratsaldea beherantz zihoan eta eguzkia gorritzen ari zen balkoiaz harantz. Mendiek poltsa beltz bat egiten ziotela iruditu zitzaidan, eta bera poltsa beltz horretara erortzeko zorian zegoen mizpira heldu bat zela. Gortinek iragazi eta gero, eguzki haren argia arrosa kolorekoa bihurtzen zen pasilloan.

Anaiaren pisu guztia gainean sentituz, Paulo argi hari begira gelditu zen.

Holako eguraldiarekin, pentsatu zuen, aitak alkandorarik gabe egiten zuen lan, elastiko hutsik. Halaxe ikusi nuen hilabete ez dela. Orain ohean dago bere begi handi horiekin. Bihar lurraren azpian egongo da.

Begiak itxi zituen aita lurraren azpian ikusten ari balitz bezala, eta nik ere begiak itxi nituen.

Neskame zaharrak atera gintuen begiratze hartatik. Zabaldu zuen gelako atea, itxi zuen, egin zituen hiruzpalau pauso guregana, eta airean ez zen dardararik txikiena ere sentitu.

Tximeleta baten hegadak ez zukeen airea gehiago harrotuko, pentsatu nuen.

Andreak builarik ez ateratzeko adierazi zuen atzamarra ezpainetara eramanez. Paulok baietz egin zion buruaz, segituan joango zirela gelara.

Danielen gelako atea zabaldu zuenean, sei katagorri ikusi zituen oheko tapaki zuriaren gainean, ogi pusketa ahaztu baten inguruan bilduta, eta pauso bat egin zuen atzera. Arratoiak zirela iruditu zitzaion.

Atzera egitean, anaiaren bularrarekin egin zuen topo. Dannielek buru osoa kentzen zion.

Katagorriek arretaz begiratu zieten bi buru haiei. Bil-bil eginda zeuden, hamabi begi eta sei isatseko animalia arrotz baten itxura hartuta. Mintzoak bidalita zeuden han, eta Daniel nor zen jakin nahi zuten, buru txikikoa zen ala buru handikoa.

—Katagorriak, Paulo! —oihukatu zuen Danielek katagorriengana zalapartan inguratuz.

Baina ez zituen eskuetan hartu, nahiz eta haiek hori eskatu; batzuk bi hankan ere jartzen zitzaizkion.

—Niretzat, Paulo? —Pozak eztarria pitzatzen zion.

—Bai —erantzun zuen Paulok zuhurki inguratuz—. Baina aurrena arropaz aldatu behar haut.

Daniel ohean etzan zenean, bi katagorri igo zitzaizkion bularrera. Haiekin jostatzen zen bitartean, anaiak oinetakoak kendu, galtzak kendu, arropa zuria kendu eta esponja batez igurtzi zizkion izter-masailak.

Hamabost urte besterik ez ditu, pentsatu nuen, eta penatu egin nintzen Paulo hala ikusita, zeren hain gaztea izan arren behartuta baitzegoen anaia zaharrenaren pixak garbitzera, eta hozkia, edo ikara, edo higuina ematen zioten katagorri haien hurbiltasuna sufritzera.

Etxeko zakurrak berritu egin zituen zaunkak, esanez bezala: «Libra nazazue kate honetatik eta aurrean daukadan gutzia txikituko dut». Handik gutxira, ate-joka hasi zen norbait atarian, eta Paulok, lotsatu egin balitz bezala, ohe azpian sartu zuen palankana eta galtzak jaso zizkion anaiari. Katagorriak Danielen saihets batean pilatu ziren.

Emakume zaharrak isilik egoteko eskatu zien gelaren partetik pasatzean.

Pausoak sentitu ziren. Norbait zetorren pasillotik

—Zer moduz daude nire mutilak?

Beltzez jantzitako gizona zen, lehen zintzarriaren atzetik ikusi nuen bera. Gelako atean zegoen. Goitik behera begiratzen zien bi anaiei.

—Ondo, erretore jauna —erantzun zion Paulok, artean lotsatuta.

Erretore delakoak ilea banatu zion Paulori.

—Orain zuen aitarengana joan beharra daukat, baina laster naiz hemen.

Danieli begiratu zion gero. Gure ume handia pozik al dago? esatera zihoan, baina isildu egin zen haren begirada galduaz ohartzean.

Erretoreak pasilloan aurrera segitu zuen, eta zintzarriaren mutikoa azaldu zen haren atzetik. Irribarre malizios batez begiratu zien bi anaiei, jostaketan balebil bezala, eta ez heriotza batean laguntzen. Paulok ez zion kasurik egin, eta Danielengana jiratu zen.

—Aitari azken igurtziak emango zizkiok erretoreak. Horretara etorri duk.

Baina anaia katagorriekin zebilen ostera. Haren aldamean etzan zen Paulo eta besoa pasatu zion lepo azpitik.

—Nork ekarriko dio arropa zuria Danieli?

Anaia maite-maite egiten ari zitzaiolako edo, mutil handi hura lerdea zeriola jarri zen. Begiak itxita erantzun zuen:

—Zuk.

Paulok aho inguruko lerdea garbitu zion.

—Eta nork maiteko du Daniel beti-beti?

—Zuk.

Erantzuna ematearekin batera, besoak zabaldu eta Pauloren gainera oldartu zen. Besarkada bat, asmo hori izan balu. Baina pasilloko jostaketarekin segitzeko gogoia besterik ez zen.

Ohe guztia banatu arte jostatu ziren. Gero lo gelditu ziren biak; bata bestearen gainean, bi txori bezala.